



ARARTEKOAREN ERAKUNDE ADIERAZPENA AZAROAREN 25ERAKO

Emakumearen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean Arartekoak, pertsonen eskubideak babesteko erakundea denez, irmoki gaitzesten du gizarteko gaitz arbuigarri hori, oraindik ere demokraziaren oinarriak ahultzen baititu.

Modu bakarra dago edozein emakumek emakume izate hutsagatik bizi dezakeen arriskua barreiatzeko, lehenik, eta desagerrarazteko, gero: ideologia matxistaren kontra aurretiaz neurri sendoak hartzea, hain zuzen ere emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna ziurtatuko duten neurriak. Ideologia sexistaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren artean harreman zuzena dagoela onartzen bada, beste ezer baino lehen, ez da tolerantzia izpirik erakutsi behar sexismoaren edozein adierazpenen aurrean.

Ekimen publiko anitz daude emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzeko, baina nahikoa da sexismo-adierazpen bakar bat onartzea erakundeen ahalegin goresgarri horien sendotasunari dar-dar eragiteko. Ideologia matxista aldatzeko, botere publikoek ozen eta argi hitz egin behar diote gizarteari; mezu kontraesankorrek edo zalantzaragarriek matxismoaren jarrera fundamentalistak indartu besterik ez dute egiten.

Etengabe ebaluatu behar da indarkeria jasan eta salatu dutenei erakundeek ematen dizkieten erantzunen multzo zabala. Horretan denok ados gaude. Ebaluatu ahal izateko, neurri horiek jasoko dituztenei galdetu behar zaie. Egiaztatu dugunez, emakume horietako asko oraindik ere izugarrizko kalbarioa bizitzen ari dira eta, zenbaitetan, erakundeen erantzun batzuekin erabateko desengainua hartu dutela diote, erantzun horiek ez baitute behar bezala asmatzen beraien arazoak konpontzen. Emakume horiek ez dute oinarririk aurkitzen bizimodu autonomoa hasteko, biktimizazio esparrutik atera ahal izateko. Kasu horiek agerian jartzen dute banan-banako erantzuna eman behar dela hain kontuzkoa den gai honetan, izan ere, jokoan dago emakumeen osotasun fisiko eta morala.

Emakume etorkinen kontrako indarkeria gutxitzeko bitartekoak jarri behar dira. Sexismoak kulturazko presentzia indartsuagoa du herrialde jakin batzuetatik datozen pertsonen komunitatean, bada, herrialde horietan gizarte-nagusitasun handiagoa du ideologia matxistak. Genero indarkeriazko estatistikek erakusten dutenez, biktimen artean, emakume etorkinak alde handiagatik gailentzen dira. Hori egiaztatu eta gero, emakume horiei arreta berezia eman behar zaie prebentzioaren arloan, baita babes handiagoa ere, beraien egoera sozio-ekonomikoagatik oso ahulak direlako.

Erakunde hau kezkatuta dago genero-indarkeriak tratatu txarrak jasandako emakumeen seme-alabengan duen eraginagatik. Seme-alabak, askotan, indarkeria mota horren bigarren mailako biktima izaten dira, biktima zuzenak ez badira. Familia barruko indarkeria kasuetan, prebentzio-lana egin behar da adingabeak babesik gabe gera ez daitezen, eta arazo horri aurre egiteko berariazko neurriak abiarazi behar dira.

Botere publikoek zuzendu behar dute, dudarik gabe, genero-indarkeriaren kontrako borroka, baina gizarteari dagokio irmo adieraztea argi eta garbi gaitzesten dituela ez bakarrik edonolako indarkeria-adierazpenak, baizik eta baita matxismo forma guztiak ere. Matxismo forma batzuk oso nabarmenak dira, adibidez, emakumeekiko arbuioa edo bazterkeria; beste batzuk, ez hain nabarmenak, esaterako, sexuen arabera rol estereotipatuak esleitzea; eta beste batzuk, are sotilagoak dira, hala nola bizitzako arlo desberdinetan neskatoak eta emakumeak ikusezin bihurtzea edo bigarren mailako eta erabaki-ahalmenik gabeko zereginetan zokoratzea.

Emakumeen berdintasunaren eta osotasunaren aldeko konpromiso horiei buruz hausnar egiteko eskatzen die denei gaur Arartekoak.